



EPE 2026 - SUKALDEA ETA GARBIKETA

Ohiko galderak

Argitalpen-data: 2026ko irailaren 4a

1.- PARTE-HARTZEKO BALDINTZAK

1.1.- Zer titulu behar dut aurkeztu ahal izateko?

Bi lan-kategorietako batean zein bestean ez da titulaziorik eskatzen.

1.2.- Zeintzuk dira parte hartzeko baldintzak desgaitasuna dutenentzat gordetako txandan?

% 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa aitortua izatea.

1.3.- Nola egiaztatu behar dut desgaitasuna, txanda horretan banoa?

Eskabidean berariaz adierazi beharko da, eta plaza lortuz gero, organo eskudunek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

1.4.- Lan-kontratudun langile finkoa naiz, parte har dezaket prozesu honetan?

Bai, baldin eta lan-kontratudun langile finkoa ez bazara kategoria horretan.

2.- ESKABIDEA

2.1.- Zer egin behar dut hautaketa-prozesuan onartua izateko?

Eskabidea bete, epearen barruan aurkeztu eta izena emateko tasa ordaindu behar duzu.

2.2.- Zein da eskabideak aurkezteko eta tasak ordaintzeko epea?

2026ko irailaren 21etik urriaren 19ra (biak barne).

2.3.- Zer egin behar dut eskaera aurkezteko?

Eskabideak bide elektronikoz aurkeztuko dira, Enplegu Publikoaren Atarira jo beharko da, helbide elektroniko honetara: <https://www.euskadi.eus/enplegu-publicoa/>. Eskabidea bete ahala adieraziko diren jarraibideak bete beharko dira.

Hezkuntza Sailaren webgunean esteka bat jarriko da "2026ko EPE - Sukaldea eta garbiketa" > "Eskaera > "Eskaera egin" atalean. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak onartutako bitarteko baten bidez identifikatu beharko da.

Eusko Jaurlaritzaren KZGune zentro publikoetan ere egin ahal izango da eskabidea bide elektronikoz. KZ-Gunea zentroen zerrenda eta kokapena helbide honetan daude eskuragarri: www.kzgunea.eus

2.4.- Aurkeztu naiteke bi kategorietara?

Bai, kasu horretan izangaiek eskabide bat aurkeztu beharko dute hautaketa-prozesu bakoitzeko, eta bi kategorietan hautatuak izan daitezke.

2.5.- Zenbatekoa da prozesuan parte hartzeko tasa?

Tasa 8,18 eurokoa da. Tasa epe barruan ordaintzen ez bada, prozesutik kanpo geratuko da.

2.6.- Nola ordaindu behar dut tasa?

Eskabidea egiten den aplikazio beraren bidez. Aplikazio horrek esteka bat izango du Euskal Administrazioaren ordainketa-pasabidera.

2.7.- Eskabidearekin batera dokumentaziorik aurkeztu behar dut?

Ez da dokumentaziorik erantsi behar.

3.- PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURATZEA

3.1.- Eskabidea bete ondoren, non kontsulta dezaket hautaketa-prozesuan zehar argitaratuko den informazioa?

Hautaketa-prozesuei buruzko informazio guztia helbide elektroniko honetan argitaratuko da: <https://www.euskadi.eus/enplegua-publicoa/> eta Hezkuntza Sailaren webgunean ("2026ko EPE. Sukaldea eta garbiketa").

3.2.- Eskabideaz gain, zer beste kudeaketa egin ditzaket Enplegu Publikoaren Atarian?

Honakoa egin daiteke:

- Datu pertsonalak aldatzea hautaketa-prozesu osoan.
- Eskabidea zuzentzea, hala badagokio, zuzentzeko epean.
- Erreklamazioak aurkeztea, horretarako ezartzen diren epeetan.
- Lehiaketa-faseko merezimenduak alegatzea, horretarako ezartzen den epean.
- Lanpostuak aukeratzea.
- Hala badagokio, eskatutako dokumentazioa erantsi.

3.3.- Deialdia (2026ko uztailaren 21eko Agindua) eta ohiko galderen dokumentu hau irakurri ondoren oraindik zalantzaren bat badut, zer egin dezaket?

Harremanetan jar zaitezke: ope-laborales-hezkuntza@euskadi.eus

4.- ONARPENA

4.1.- Noiz eta nola jakingo dut hautaketa-prozesuan onartua izan naizen ala ez?

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena argitaratuko du hilabeteko epean, eta horren bidez onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onetsiko du.

Zerrendan hautagai bakoitzak parte hartzen duen kategoria eta txanda jasoko dira, baita, baztertua izanez gero, horren arrazoa ere.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Langileak Kudeatzeko zuzendariak ebazpena argitaratuko du, eta horren bidez onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onetsiko du.

4.2.- Nola aurkeztu dezaket erreklamazioa onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka?

Esteka bat jarriko da erreklamazioa aurkezteko hamar egun balioduneko epean, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edo, hala badagokio, zuzendu ahal izango da baztertzea eragin duen akatsa.

Dagokion tasa ez ordaintzea ez da akats zuzengarritzat jotzen.

5.- OPOSIZIO-FASEA (PROBA)

5.1.- Nolakoa da proba?

Proba bat egin beharko da, nahitaezkoa eta baztertzailea. Gehienez ere bi orduko iraupena izango du.

Aukerako erantzunak dituen 20 galderako galdetegi bati erantzun beharko zaio. Galdetegi horrek 10 galderetako lehenengo ariketa teorikoa izango du gai-zerrenda orokorrari buruzkoa, eta bigarren ariketa teoriko-praktikoa, 10 galderetako gai-zerrenda espezifikoki buruzkoa.

Ariketa bakoitzak erreserbako 3 galdera izango ditu.

5.2.- Nola puntuatzen da proba?

Zero (0) puntutik hogeita (20) puntura kalifikatuko da – zero (0) puntutik hamar (10) puntura ariketa bakoitzean –. Baztertu egingo dira bi ariketen artean hamar (10) puntu lortzen ez dituztenak, eta ariketa bakoitzean gutxienez 3 galdera zuzen erantzun beharko dira. Ariketa horien zuzeneko puntuazioa formula honen emaitza izango da: erantzun zuzen bakoitzari 0,5 puntu emango zaizkio, eta okerreko erantzunek ez dute puntuaziorik kenduko.

5.3.- Non aurki ditzaket gai-zerrendak?

Gai-zerrendak deialdiaren aginduaren bidez argitaratu dira.

II. eranskina – Sukaldariaren gai-zerrenda orokorra eta espezifikoa

IV. eranskina - Garbiketako langileen gai-zerrenda orokorra eta espezifikoa.

5.4.- Noiz eta non egingo da proba?

Hautaprobak ez dira hasiko 2026ko abendua baino lehen.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpenean zehaztuko dira ariketak egiteko tokia, eguna eta ordua.

6. LEHIAKETA-FASEA (MEREZIMENDUAK)

6.1.- Zer esan nahi du eskabideak aurkezteko epea amaitu arte egindako merezimenduak bakarrik barematuko direla?

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte lortutako merezimenduak bakarrik hartuko dira kontuan, legeko betekizun guztiekin, betetzat jo ahal izateko.

6.2.- Zer meritu alegatu ditzaket eta zenbat puntuatzen dute?

Merezimenduen baremoak deialdiaren aginduaren bidez argitaratu dira.

III. eranskina – Sukaldarien merezimenduen baremoa

V. eranskina – Garbitzaileen merezimenduen baremoa.

Izangai bakoitzak gehienez 20 puntu lor ditzake merezimenduak baloratzeagatik.

6.3.- Nola alegatu behar ditut merezimenduak?

Oposizio-faseko behin betiko kalifikazioak argitaratu ondoren, 10 egun balioduneko epea ezarriko da merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko.

Epe hori irekita dagoenean, Enplegu Atarian erakutsiko dira Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan ageri diren merezimenduak eta elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bidez jaso direnak (eskabidean baimena eman denean).

Bakarrik alegatu eta aurkeztu beharko dira erakusten ez diren merezimenduen egiaztagiria, bai ofizioz konputagarriak izan arren Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez daudelako, bai elkarreragingarritasuneko sistema elektronikoen bidez kontsultatu ezin izan direlako.

7.- HAUTAKETA-PROZESUA GAINDITZEA

7.1.- Hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan nago. Zerbait egin behar dut?

Bai, hautatutako pertsonak Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen dizkien dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Aurkeztu beharreko dokumentuek jatorrizkoak izan beharko dute, edo lokalizatzailea edo sinadura elektronikoa duten dokumentuak, horiek aldaezinak izango direla bermatzeko.

8.- LAN-POLTSA

8.1.- Hautaketa-prozesu horiek lan-poltsa bat sortuko dute?

Ez, sukaldeko eta garbiketako langileen zerrendak mantenduko dira.

Hala ere, lanposturik lortu gabe hautaketa-prozesua gainditzen duten pertsonen 365 puntu emango zaizkie zerrendetan.